

EZKIO-ITSASO / Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria liburutegian egon zen atzo goizean

EZKIO-ITSASO. DV. Asteazkenean liburuaren eguna ospatu zen mundu osoan eta honen inguruan, urtero egiten duen bezala, zerbait berezia prestatu zuen Ezkio-Itsasoko liburutegiko arduradunak, Udalaren laguntzarekin batera. Aurten, ipuin kontalari dotorea izan dugu herrian. Atzoko ipuin kontalaria Ixabel Agirresarobe izan zen eta goizeko 11etan hasi zen saioa. Ume ugari hurbildu ziren herriko liburutegira ipuinak entzuteko asmoz. Txikienak lehenengo hilaran eseri ziren lurrean kokatuta zegoen alfonbraren gainean; ondoren lehenengo hilaratan gaztetxoak zeuden; eta azkenik, bertara inguratu ziren guraso eta helduak kokatzen ziren.

Denak oso adi egon ziren denbora guztian ipuin kontalariak esaten zuena ondo ulertzeko. Harridura aurpegiak, barreak... entzun ziren, eta gainera umeez ipuinetan parte hartzeko aukera ere izan zuten.

Mota desberdinetako ipuinak entzuteko aukera egon zen atzo goizean. Batzuetan irudimena landu behar zen eta adi egon ipuina jarraitzeko. Baina beste batzuetan ipuin handi bati esker historia ikusteko aukera ere egon zen.

Goiz polita igaro zuten atzo bai umeez bai helduek ipuin kontalariari esker!